

JARDUN AKADEMIKOAREN PLANA 2018/19 - BERRIKUNTZAK

Jardun Akademikoaren Planaren Jarraipena Egiteko Batzordeak, 2017ko ekainaren 19an egindako bileran, 2015/10/01ean Gobernu Kontseiluak onartutako Jardun Akademikoaren Planean zenbait garrantzi txikiko aldaketa sartzea onartu zuen. Onartutako testua 2018/19 ikasturtean eta hurrengoetan egongo da indarrean.

ALDAKETAK IZAN DITUZTEN JARDUERAK (2018/19ko JAPeko KODEEKIN)

- **IKER5-Tesia inskribatu izana edo akreditazio-konpromiso bat indarrean edukitzea:**
Formakuntzako irakasleen doktore titulua bloke orokorrera eraman da (4. lerroa), IIP iraunkorren kasuan egiten den bezalaxe, eta doktorego- eta akreditazio-konpromisoak (JAPari dagokionez) indarrean daudela jotzeko gehinezko epea definitu da:
 - JAPari dagokionez, azken lau urtean sinatutako konpromisoak baino ez dira kontuan hartuko. Horrela, 2018/19 ikasturteko JAPean 2013ko irailaren batetik aurrera sinatutako konpromisoak hartuko dira kontuan.
 - Akreditazio-konpromisoa duten irakasle doktoreek sei kreditu jasoko dituzte: a) lau kreditu JAPeko jardueren kontsulta-orriaren laugarren lerroan doktoreak izateagatik, eta b) bi kreditu IKER5-kontzeptuan, konpromisoagatik. [Aurreko deialdietan sei kredituak IKER5-kontzeptuan jasotzen zituzten].
- **G4- ENQAko batzordeetako kideak.** Aitortzen diren epeak honela zehaztu dira: batzordekidearen jarduneko epea bi urte natural edo gehiagotan banatu bada, urtea JAPean kontuan hartuko da baldin eta urte horretan gutxienez 6 hilabetez jardun bada.
- **G6-Saileko idazkari akademikoak:** 2018/19 ikasturteko JAPetik aurrera, hori barne, kredituak eginkizuna egiten den urte berean grabatuko dira eta ez, 2017/18 ikasturteko JAPa arte bezala, bi ikasturteko atzerapenaz. [2018/19an, orobat, 2016/17 edo 2017/18 ikasturteetako lana aitortuko da, eta gainezartzeak hurrengo ikasturteetan orekatuko dira]

Informazio gehiago behar izanez gero, arautegi osoa eskura dago honako esteka honetan:

<http://www.ehu.es/documents/3087158/3127975/2018-19+ikasturteko+JAParen+gaineko+araudia>